

TOLOSAN GAZTE LOKALEI BURUZKO BIZIKIDETZA ARAUDIA

TOLOSAKO GAZTE LOKALEN INGURUKO BIZIKIDETZA ARAUDIA

ZIOEN ADIERAZPENA

Gazteen aisialdia antolatzeko modu berri baten aurrean aurkitzen gara; gazteek lagunekin biltzeko erreferentziazko gune propio bat bilatu eta topatu dute gazte lokaletan. Zentzu honetan, lokal bakoitzak dituen baldintzak eta ematen zaien erabilera oso desberdinak dira. Errealitate berri baten aurrean gaude, eta lokalen eta bizilagunen arteko bizikidetza behar bezalakoa izan dadin, guztion ahalegina beharrezkoa da.

Lokalen fenomeno berri honek gazte eta bizilagunen elkarbizitzaren ulerkera berria eskatzen du gazte eta bizilagunen harremanei dagokionean. Araudi hau, hortaz, bizikidetza hori bermatzeko borondatearekin osatuta dago.

Helburuak:

- a) Gazte lokalek gutxieneko baldintzak bete behar dituzte, hau da, bizigarritasun, higiene eta erosotasunari dagozkienak eta baita segurtasunari eragin liezazkiekeenak ere.
- b) Gazte lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak bateratu behar dira, dagozkion neurri zuzentzaileak hartuta.
- c) Gazte lokaletan sor daitezkeen arazoak murriztu eta bizikidetza bermatu behar da.

Udalak, 2013ko maiatzean, herri partaidetzako prozesu bat bideratu zuen. Gazte lokalen gizarte-fenomenoan inplikaturako herritarren artean (gazteak, auzotarrak, jabeak eta adin txiki-kioen gurasoak) eratu ziren lan-dinamiken bidez, ondorengo elementuak eta fenomenoak sortu ziren:

- Herritarren arteko hurbilketa eta elkarrizketa. Horri esker, gaia testuinguruan kokatu, hausnartu eta eztabaidatu ahal izan da, eta taldeko proposamenak sortu dira.
- Adostasunez, gazteentzako gazte lokalek gizarte-fenomeno gisa duten garrantzia onartu da.
- Herritarrek adostutako proposamenak eta iritziak jaso dira, gazte lokalei buruzko gaiak eta esparruak arautu eta normalizatzeko.
- Gazte lokal guztietan ezarriko den honako bizikidetza-proposamen hau sortu eta onartu da.

Horien guztien ondorioz, Udal Ordenantza berri bat egin da lokal hauek arautzeko. Ordenantzaren ildoak honakoak dira:

- Gazte lokalak ostalaritzako arautegitik at geldituko dira, baldin eta ez badute sukalderik.
- Gazte lokalek gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak izango dituzte.

Tolosako gazte lokalek emakume gazteen presentzia eta parte-hartzea bermatu beharko dute, gizon eta emakumeen berdintasuna indartzeko eta elkarbizitza eta demokrazia inklusiboa lortzeko helburuarekin .

- Zaratak egindako eragozpenak adostutako elkarbizitzarako protokoloaren bidez konponduko dira, eta, horrela ez badira konpontzen eta arautegi sektorialak ezartzen dituen soinu-mailak ez badira betetzen, gazte lokala itxi egin beharko da.

I. KAPITULUA EZARPEN EREMUA

1. Artikulua. Xedea.

Udalerrian dauden gazte lokalen erabilera arautzea du helburu Ordenantza honek. Ordenantza honen xedea honakoa da: batez ere gazteek aisialdi alternatiborako erabiltzen dituzten lokalen jarduera elkarbizitza komunitariorako irizpideak arautu, erabiltzaileei eta auzotarrei sor dakizkiekeen traba eta arriskuak ekidinez, eta erabiltzaile zein auzotarren eskubide eta betebeharrak zehaztea.

Era berean, aipatu lokalek, nahitaez, gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak betetzen dituztela bermatzea.

a) Lokalen erabilera eta auzotarrei enbarazurik ez egiteko duten eskubidea bateragarri izatea. Azken finean, lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak bateratzea da lortu nahi dena, eta horretarako, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea.

b) Gazte lokalek sortzen dituzten arazoak murriztea eta elkarbizitza bultzatzea.

c) Gazte lokalek gutxieneko baldintzak bete ditzaten ziurtatzea, hau da, bizigarritasun, garbiketa eta erosotasunari dagozkienak eta baita segurtasunari eta auzotarrei eragin diezazkiekeen eragozpenei buruzkoak ere.

Gazteek aisialdirako erabili eta haientzat erreferentzia-gune dira gazte lokalak, lagunekin elkartu eta egoteko erabiltzen diren guneak dira. Gazte lokalak sarrera mugatua duten gune pribatuak dira, eta ez daude mundu guztiarentzat zabalik. Eraikinetako behe solairuan egon ohi dira lokalak.

2. Artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza honek Tolosako lurzoru urbanoan dauden lokaletan izango du eragina eta baita lurzoru industrialean direnetan ere. Egun daudenetan eta gerora irekiko direnetan ere bai. Ordenantza hau kontuan hartu beharko da, hortaz, irekiko diren lokal berrietarako zein gaur egun daudenak egokitzeko edo titularitate aldaketa izango duten horietarako.

3. Artikulua. Erabilera

a) Lokal hauetan ezingo dira gazteen aisialdiarekin zerikusi zuzena ez duten jarduerak burutu, ez eta jarduera gogaikarri edo sexistak direnak ere. Debehatuta egongo da, halaber, ezer saltzea edo erostea lokal hauetan.

b) Berariaz araudi honetatik kanpo geldituko dira, ostalaritzako jarduerak, hala nola, zirkuetan, barraketan, txosnetan, txoko gastronomikoetan kokatutako taberna, kafetegi edo jatetxe zerbitzuak, eta baita 3/1998 Ingurumena Babesteko Legearen II.B eranskinean aipatutako jarduera guztiak ere.

Lokal hauetan sukaldea ezingo da izan, eta horrela bada, ostalaritzako jarduera bezala hartuko da eta 3/1998 Ingurumena Babesteko Legea ezarriko zaie.

4. Artikulua. Hartzaileak

1. Gazteak: Ordenantza honen bidez, gazte lokalek dituzten baldintzak hobetzea da helburua. Lokaletako erabiltzaile diren aldetik, gazte hauek dituzten eskubideak ezagutzera eman nahi dira. Beste alde batetik, honelako jarduera baten aurrean dituzten betebeharrak eta ardurak ezagutu behar dituzte gazte hauek.

2. Auzotarrak: Zarata izan ohi da lokalen erabiltzaileen eta bizilagunen arteko gatazka nagusiaren jatorria. Ordenantza honen xedea arazoak murriztea da eta alde bietako eskubideak beteko direla bermatzea.

3. Lokaletako jabeak: Ordenantza honek gazte lokalak behar bezala erabili ahal izateko eduki behar dituzten baldintzak arautzen ditu. Lokaletako jabeek, hortaz, ordenantza honen berri izan behar dute.

4. Adin txikiko erabiltzaileen guraso edo tutoreek ordenantzaren berri izan behar dute.

5. Artikulua. kokapenari buruzko baldintza orokorrak

1. Lokal batetik bestera gutxienez 50 m-ko distantzia dagoela bermatuko da.
2. Lokal batetik bestera 50 metro baino gutxiago baldin badago, hauetako batek bere jarduera eteten duenean edo titularitate aldaketa ematen denean, ezin izango zaio baimen berria eman lokal horri.

6. Artikulua. Asegurua

Erantzukizun zibileko aseguru eduki behar dute gazteek. Adingabeen kasuan, hauen tutoreak egingo dira kargu aseguru horretaz. Gutxienez 300.000 €takoa izango da. Aseguru honek erabiltzaileak eta, edozer gertatuta ere, hirugarrenekoak ere babestuko ditu.

Lokalaren Jabeen esku geratuko da **lokalaren edukitzailearen aseguru** eta aukerakoa izango da lokalaren edukien aseguru ateratzea.

7. Artikulua. Kontratua

Lokalek alokairu edo erabilera izateko lagapen kontratua izan behar dute, jabeek eta erabiltzaile ordezkariak izenpetuta. Adingabeen kasuan, hauen ardura dutenek izenpetuko dute, adin txikiko erabiltzaile bakoitzaren tutoreak izenpetuta.

II. KAPITULUA EKIPAMENDUA, GARBITASUNA ETA OSASUN ARLOKO BALDINTZAK

Kapitulu honetan jasoko diren baldintza eta neurri zuzentzaile guztiak arau orokorrak izango dira, eta Ordenantza honen mende gelditzen diren lokal guztietan bete beharko dira.

8. Artikulua. Lokalaren baldintza espezifikoak

1. Behe solairuetan kokaturik dauden lokalak onartuko dira bakarrik. Kaletik edo bide publikotik zuzeneko sarbidea izan beharko du.
2. Lokalaren altuera 220 zentimetroetako izango da gutxienez.

9. Artikulua. Lokalak bete beharreko gutxieneko baldintzak

9.1 Lokal guztiak ez dira egokiak edozein jarduera burutzeko, segurtasunaren eta garbitasunaren gutxieneko baldintzak bete behar baitituzte. Hauek betetzea jabearen esku geratuko da, I) eta J) atalean azaltzen direnak ez beste, hauek lokaleko erabiltzaileen esku egongo baitira.

Azpiegiturak.

- a) Argia: Derrigorrezkoa da argiaren instalazioa erabiltzeko egoera onean eta ofiziala denaren egiaztatzea izatea (instalatzailearen instalazio ziurtagiria eta industriako buletina).
- b) Ura: Derrigorrezkoa da ur-hartune bat eta kontagailua izatea, gutxienez, garbiketa lanak eta erabiltzaileen kontsumoa ziurtatzeko. Saneamendu instalazioa izan beharko dute.
- c) Komuna: lokalek komuna izan behar dute bertan. Aireztapen naturalik ez badu aireztapen mekanikoa izango du teilatura, eta azken hau ezin bada lortu, fatxadara. Konketa eta komunontzia izango ditu.
- d) Su-itxalgailua: Legeak ezarrita duenaren arabera su-itxalgailuak eduki beharko dituzte. Gutxienez, ABC motako sei kiloko hautsezko su-itxalgailu bat.
- e) Larrialdietako argiak: Irteerako seinaleztapena eta irteera bera non dagoen eta, halaber, larrialdietako gailuak era egokian egon behar dute jarrita.
- f) Edukiera: Lokalak duen edukiera (aforoa) ezarrita egon beharko du. Horretarako, Eraikinetarako Kode Teknikoan agertzen diren suteen prebentzioaren gaineko argibideak hartu behar dira kontuan. Behe solairuan, erabilera publikoa duen gunean 2 m²-ko pertsona bat da neurria. Gehienezko edukiera hau lokal barruko begi-bistakoa den toki batean jarri beharko da.
- g) Ateak: Sartzeko eta irteteko ateak 80 zentimetroko zabalera eduki behar du, gutxienez.

- h) Sarrera: Lokalek segurtasun eta iredgarritasun neurriak ziurtatzeko kalerako zuzeneko sarbidea egokitua izan behar dute. Ezingo dute, bestalde, atalondotik sarbiderik eduki.
- i) Lehen laguntzetarako botikina eduki beharko da lokaletan.
- j) Berogailuak elektrikoak izango dira.
- k) Lokalak aireztatuak egon behar dira, horretarako aireztatzeko dauden leiho edo ate guztien azalera gutxienez lokalaren azalera erabilgarriaren 1/20 izango da.

9.2. Udalak instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko, edo bestela, neurri zuzentzaileak ezartzeko.

10. Artikulua. Zaratak eragindako eragozpenak saihesteko neurriak

1. Gazte lokalek zarata eta dardaren arautegiak ezartzen dituen soinu-mailak errespetatuko dituzte; zeinak hiru ordu-tarte desberdin bereizten dituen:
2.
 - 1.- Egunez: 10 ordu. 09:00etatik 19:00etara
 - 2.- Arratsalde: 4 ordu. 19:00etatik 23:00etara
 - 3.- Gaez: 10 ordu. 23:00etatik 09:00etara.

NON	Db(egunez)	Db(arratsalde)	Db(gaez)
Egongelan	40	40	30
Logelan	35	35	25

Soinu-mailak bi irizpideren arabera neurtuko dira, etxebizitzetako egongeletan edota logeletan.

3. Gaueko 23.00etatik aurrera lokaletako ateek eta leihoek itxita egon beharko dute.
- 4.- Soinu mailak ez badira betetzen, arazoari adostutako elkarbizitzarako protokoloaren bidez irtenbidea emango zaio. Irtenbiderik ez bada lortzen, gazte lokala itxi egin beharko da

11. Artikulua. Garbiketa neurriak

- a) Lokalaren barruan ezingo da zaborrik pilatu, zabor-poltsa edo zaborrontzietatik kanpo. Zaborra sailkatu egin beharko da.
- b) Lokalaren kanpoaldeak eta inguruak baldintza higieniko egokiak izan beharko dituzte. Horrela bada, ez dira botata utziko lokalean egindako jardueraren batean erabilitako gauzak edo bertan sortutako zaborrak.
- c) Zaborra kalean dauden Udaleko zaborrontzietan sartu behar da sailkaturik.
- d) Lokalak beti aireztatuta egon behar du.

12. Artikulua. Gune publikoaren erabilera

1. Kalean, jendeak erabiltzen dituen gune publikoetan egiten diren zaratak mugatu egin beharko dira, elkarbizitzari eta besteei zor zaien errespetuz.

2. Ildo horretatik lokalaren kanpoaldean ezin izango da jenderik pilatu. Ez da onartuko espazio publikoaren okupazioa motor, bizikleta eta antzerako objektuekin.

3. Garrasien, kantuen, txistuen, motoen eta autoen motorren ondorioz, zaratarik ez egiteko ahalegina egingo da.

III. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

13. Artikulua. Lokal berriak irekitzeko eskabidea

1. Jarduera honen jakinarazpena alkate-lehendakariari zuzenduko zaio, eta bertan, ondorengo datuak aipatu beharko dira:

- Eskatzailearen izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia edo Identifikazio Fiskalerako Zedula, helbidea eta telefonoa.
- Lokalaren ardura duten pertsona guztien izen-abizenak, eta harremanetarako telefonoa. Adingabeak izanez gero, gurasoen edo tutoreen baimena egiaztatzen duen agiria.
- Lokalaren kokalekua eta deskribapena: kalea eta zenbakia, guztizko azalera eta atalkakoa (bainugelak, biltegia.). Segurtasun neurriak jarrita dauden guneen planoak eta zehaztapena.
- Lokalaren jabearen datuak: izen-abizenak eta telefonoa.
- Lokala kokatuta dagoen komunitateko administratzailearen izena, abizenak eta telefonoa. Pertsona hori izango da gazteekin harremanetan izango dena.
- Lokalaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua edo alokairuaren kontratua.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia. Eskabidea lokalaren lehenengo erabilerarako denean, erantzukizun zibileko aseguruaren aurrekontua aurkeztu beharko da. Azkenean erabilera baimena ematen baldin bada, aste beteko epean aurkeztu beharko da erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.

14. Artikulua. Lokal berriak irekitzeko edo egun erabiltzen diren lokalen egoera arautzeko prozedura

a) Lokal bat ireki aurretik, lokaleko gazteek aurreko artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Udaletxean.

B) Udal zerbitzu teknikoek ikuskapena egingo dute 10. artikuluan aurreikusten diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

C) Baldintzak bete direla egiaztatu beharko dute, beharrezkoa den dokumentazioa edo ziurtagiriak aurkeztuz.

D) Dokumentazioa aurkeztu ondoren Udalak lokalaren ikuskaritza egingo du.

15. Artikulua. Erregistratu gabeko lokalak

Izan daitezkeen bestelako zigorrak alde batera utzi gabe, Ordenantza honek ezartzen dituen baldintzak lokal batek betetzen ez dituela jakindakoan, honako neurri hauek hartuko dira:

a) Lokala erregularizatzeko modukoa baldin bada, titularrei eskatuko zaie beraien egoera

erregularizatu dezatela; horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea emango zaie, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horretaz gain, lokala itxi ahal izango da, egokitzat jotzen baldin bada, interesatuei entzunaldia eskaini ondoren.

b) Lokala erregularizatzea ezinezkoa baldin bada, ordenantza hau betetzen ez duelako, lokala itxi egin beharko da; hala ere, interesatuei entzunaldia eskainiko zaie.

IV. KAPITULUA DIZIPLINA ARAUBIDEA

16. Artikulua. ARAU-HAUSTEAK

Ordenantza honen aurka egindako arau-haustek **arinak, larriak** edo **oso larriak** izango dira:

16.1.- Arau-hauste ARINAK:

- a) Ordenantza honetan berariaz falta larritzat edo oso larritzat jo ez diren arau-haustek.
- b) Hilabetean zaratagatik bi kexa justifikatu egiaztatu diren kasuak.

16.2.- Arau-hauste LARRIAK:

- a) Datuak isilean gordetzea eta ez ematea jardueraren titularrei eskatzen zaizkien datuak.
- b) Udalari ikuskapen-lana egin dezan eragozte, modu aktibo edo pasiboan, edo ezezkoan.
- c) Udalak ikusitako gabeziak zuzentzeko ezarri dituen betekizunak berariaz aldatzea.
- d) Zaratagatik arau-hauste arin bat burutu ostean beste bi kexa jasotzen diren kasuak.

16.3.- Arau-hauste OSO LARRIAK:

- a) Arau hauste arin eta larrien errepikapena ematen bada hilabeteko apean.
- b) Kontrola eta biolentzia bidez boterea azaltzen duten adierazpen guztiak zigortuak izango dira. Jarrera hauek guztiak, protokolo mahaian aztertu (ikus 1. eranskina) eta bertakoen ebazpena izango dute. Kasu hauetarako Berdintasun teknikarien aholkularitza izango du¹

17. Artikulua.Preskripzioa

Ordenantza honetan aipatzen diren arau-haustek ondorengo epe hauetan preskribatuko dira, ekintza burutzen denetik hasita edo ingurumenari egin zaion kaltea detektatzen denetik hasita, baldin eta berehalakoa ez bada:

- a) Urtebete eta bi urte bitartean, arau-hauste larrien kasuan.
- b) 6 hilabete eta urtebete bitartean, arau-hauste arinen kasuan.

18. Artikulua. Zehapenak

a) Arau-hauste oso larriak:

- Arau-haustea egin duten gazteek beste lokal bat okupatzeko debekua (urte 1)
- Lokala alokatua izateko debekua (urte 1)

¹ Ikus Tolosako Udalak sorturiko: Erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal protokoloa genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobe emateko.

b) Arau-hauste larriak:

- Arau-haustea egin duten gazteek beste edozein lokal okupatzeko debekua gehienez hiru hilabetean.
- Arau-haustea egin den gazte lokala 4 astez okupatzeko debekua.

b) Arau-hauste arinak:

- Arau-haustea egin den gazte lokala gehienez 2 astetan okupatzeko debekua.

Lokala ixteko zigorra, aipatutako lokalaren jabeak ordenantza honetan xedatutakoa betetzen ez den kasuetarako aurreikusten da.

*19. Artikulua. Xedapenak**Lehenengo xedapen gehigarria. Lokalen eta erabiltzaileen erregistroa*

- a) Udalak egun dauden lokalen erregistroa izango du, ordenantza honen bidez lortutako datuez baliatuta.
- b) Udalak lokalen segimendua egingo du eta martxan ez dauden lokalei baja emango zaie. lokalen batean aldaketaren bat badago, Udalari jakinarazi beharko zaio.
- d) Udaleko Gazteria Zerbitzuak informatuta izango ditu beti lokaletako gazteak.

Bigarren xedapen gehigarria. Lokalen aholkularitzarako zerbitzua

1. Eskualdeko Kontsumo Bulegoan, lokaletako gazteek eta adin gabeen kasuan, hauen gurasoek eskuragarri izango dute lokalaren kontratu eta baldintzen inguruko informazioa eta aholkua eskatzeko zerbitzua.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ikuskatzea eta kontrolatzea.

1. Lokalak urtean behin ikuskatuko dira, zein egoeratan dauden ikusteko eta lokalen zerranda eguneratuta izateko.
2. Udalaren eskumeneoak izango dira ordenantzan ezarritakoa benetan betetzen dela egiaztatzeko egingo diren funtzioak. Era berean, Udalak beharrezko ikuskapenak egiteko ahalmena izango du. alkateak, edo hala badagokio, Hirigintzako zinegotzi delegatuak eskumena izango dute beharrezko neurriak hartzeko, funtziook bermatuak egon daitezzen.
3. Lokalen bateko funtzionamenduan akatsak daudela ikusiz gero, lokaleko ordezkariak eskatuko zaie akatsak zuzen ditzaten, eta horretarako, epe jakin bat emango zaie. Epe hori ez da hiruhilabetetik gorakoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Xedapen Iragankorra.

Gaur egun zabalik dauden eta gazteen aisialdirako lokal gisa funtzionatzen ari diren lokalak erregistro fitxa betetzeko hilabeteko epea izango dute ordenantza indarrean sartzen den unetik; eta egokitze eta Ordenantza honetan eskatzen den dokumentazio guztia aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da lokalaren ikuskapena egiten den egunetik zenbatzen hasita. Hiru hilabeteko epean ez badira ordenantza honetan zehazten diren ezaugarriak betetzen, lokalaren itxierari ekingo zaio.

Azken Xedapena.

Ordenantza hau indarrean sartuko da, haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta egutegiko 15 egun igaro ondoren.

Tolosan, 2013ko urriaren 22an, Ibai Iriarte San Vicente, Tolosako Alkatea.

ERANSKINAK (1)

ADOSTUTAKO ELKARBIZITZARAKO PROTOKOLOA.

Helburua: lokalen fenomenoaren inguruko elkarbizitza irizpideak arautu eta exekutatzea. Era berean, fenomeno honek sor ditzakeen gertakari eta elkarbizitza arazo ezberdinak detektatu, bideratu eta konpontzen saiatzea .

Erabilera: Egunerokotasunean, lokalak kudeatzeko. Gatazken aurrean eta desadostasunak daudenean ere tresna erabilgarria izango da.

Protokolo honetako partaide eta ordezkariak:

a) Gazte lokalen kasuan, lokal bakoitzeko bi ordezkari izendatuko dira, lokalen erregistroan jasota egongo den moduan, kontakturako telefonoak utzita. Adin txikiko gazteak dituzten lokaletan, gazte bat eta guraso edo tutore bat izendatuko dira arduradun bezala.

b) Bizilagunei dagokienez, inplikatura dauden bizilagunak izango dira ordezkariak.

d) Lokaleko jabea. Arazo edo molestiak sortzen diren kasuetan lokaleko jabea ere deitua izango da honen kudeaketa eta konponbidean partaide izan dadin.

e) Udala. Gertaerak hala eskatzen duenean, Udaltzaingoak eta Gazteria departamenduak ere parte hartuko dute arazo/molestiaren kudeaketan.

Ohiko harremana: Gazteria Zerbitzuan lokalen erabileraren inguruko bizikidetzak gertakarien berri jaso eta konstantzia iraunkorra izango da.

Bizilagunen kexen kasuan, protokoloa edo funtzionamendu eskema hauxe litzateke:

-Kexa bizilagun eta erabiltzaileen artean modu zuzenean eta momentuan bertan komunikatzea izango da lehentasunezko jokaera; momentuan eta modu zuzenean balizko arazoa konpontzeko aukera eskainiz.

-Bizilagunek Udaltzaingoari kexa bideratuta, udaltzainak bertaratu eta lokaleko kideei kexaren berri emango liekete. Beharrezkoa suertatzen den kasuetan soinu neurketak egingo ditu Udaltzaingoak.

-Bizilagunek kexa udal erregistrora bideratuko dute.

Gazteria Zerbitzuak bizikidetzarako neurrien aholkularitzarako gune gisa funtzionatuko du.

Elkarbizitza arazo errepikatuak sortzen diren kasuetan, honako protokoloa abiatuko da:

1. Kexarekin Gazteria Zerbitzutik jakinarazpen gutuna helaraziko zaie aldeei: lokaleko ordezkariari, bizilagunari eta lokalaren jabeari edo/eta adin txikiko gurasoei.
2. 2.kexarekin Bizikidetzaren Mahaia aktibatuko da, arazoa aztertu eta aldeen arteko konponbideak bideratzeko helburuarekin.

Mahai hau horrela egongo da osatuta:

- Lokaletako ordezkariak. (erabiltzaileak adin txikikoak diren kasuetan euren guraso edo tutore ordezkariak)
 - Bizilagun inplikatuak.
 - Lokalaren jabea.
 - Udaltzain burua, Gazteria saileko teknikaria eta Gazteriako zinegotzia.
- Protokolo mahai honen jardunak fruiturik emango ez balu, Tolosako Udalaren esku geratuko litzateke azken erabakia.

NORMATIVA DE CONVIVENCIA EN RELACIÓN CON LOS LOCALES DE JÓVENES EN TOLOSA

NORMATIVA DE CONVIVENCIA RESPECTO A LOS LOCALES DE JÓVENES DE TOLOSA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Nos encontramos ante un nuevo modo de organizar el tiempo de ocio de la juventud, que ha hallado en los locales de jóvenes un espacio referencial de encuentro con sus amistades.

En este sentido, tanto las condiciones en las que se encuentran los locales como el uso que se hace de ellas es muy diferente. Nos encontramos ante una nueva realidad, y requiere el esfuerzo de todas las partes para que la convivencia vecinal sea la adecuada.

Este fenómeno de los locales exige una nueva forma de entendimiento de la convivencia entre la juventud y el vecindario en cuanto a sus relaciones. Por consiguiente, esta normativa se ha elaborado con el objetivo de garantizar esa convivencia.

Objetivos:

- a) Los locales juveniles deben reunir unas condiciones mínimas en cuanto a su habitabilidad, higiene, comodidad y seguridad.
- b) Conciliar el uso de los locales juveniles y los derechos del vecindario, mediante la adopción de las correspondientes medidas correctoras.
- c) Reducir las molestias que pudiesen originar los locales juveniles y garantizar la convivencia.

El Ayuntamiento dirigió un proceso participativo en mayo del 2013 y mediante dinámicas de trabajo desarrolladas con la ciudadanía implicada en el fenómeno social de los locales juveniles (jóvenes, vecindario, parte propietaria, padres y madres de menores de edad) se han producido una serie de elementos y fenómenos:

- Acercamiento y diálogo entre los y las ciudadanas. Esto ha permitido que el tema se contextualice, se reflexione y se debata, y asimismo se han planteado propuestas de carácter colectivo.
- Aceptación, con acuerdo, de la importancia que tienen como fenómeno social los locales de jóvenes.
- Recogida de propuestas y opiniones de la ciudadanía para regular y normalizar los temas relativos a los locales juveniles.

- Diseño y aprobación de la propuesta de convivencia que se aplicará a todos los locales de jóvenes.

Como resultado de todo lo expuesto, se ha elaborado la Ordenanza municipal que regulará el uso de estos locales en base a los siguientes criterios:

- Los locales de jóvenes quedarán excluidos de la normativa de hostelería si carecen de cocina.
- Los locales juveniles reunirán las condiciones mínimas de seguridad e higiene.

Los locales de jóvenes de Tolosa deberán garantizar la presencia y la participación de las jóvenes con el fin de fortalecer la igualdad entre hombres y mujeres y lograr una democracia inclusiva.

- Las molestias originadas por los ruidos se resolverán mediante el protocolo de convivencia consensuado, y en caso de que no se resuelvan de esta manera y se incumplan los niveles sonoros establecidos en la normativa sectorial, el local será clausurado.

CAPITULO I

ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1. Objeto.

La finalidad de la presente ordenanza es la de regular el uso de los locales juveniles existentes en el municipio para regular los criterios de convivencia comunitaria en relación con los locales utilizados por jóvenes como espacio de ocio alternativo, evitar las molestias y riesgos que puedan originar a quienes las utilicen y al vecindario, y definir los derechos de los y las usuarias y el vecindario.

Asimismo, garantizar que dichos locales reúnan obligatoriamente las condiciones mínimas de seguridad e higiene.

a) Que sean compatibles el uso de los locales y el derecho del vecindario a que no se le moleste. En definitiva, lo que se pretende es conciliar el uso de los locales con los derechos del vecindario; y para ello, que se adopten las medidas correctoras correspondientes.

b) Reducir los problemas que originan los locales juveniles, y promover la convivencia.

c) Garantizar que los locales juveniles reúnan las condiciones mínimas de habitabilidad, higiene, comodidad, seguridad y para que no originen molestias al vecindario.

Los locales juveniles utilizados como espacio de ocio y de referencia por los y las jóvenes son lugares empleados para encontrarse y estar con las amistades. Los locales juveniles son espacios privados de acceso limitado y no están abiertos a todo el mundo. Los locales se hallan en las plantas bajas de los edificios.

Artículo 2. Ámbito de aplicación

Esta ordenanza afecta a los locales situados tanto en suelo urbano como en suelo industrial de Tolosa. En los existentes actualmente y en los que vayan a crearse en el futuro. Esta ordenanza, por lo tanto, deberá tenerse en cuenta en los locales de nueva apertura, en los que vayan a acondicionarse y en los que se dé un cambio de titularidad.

Artículo 3. Uso

a) En estos locales no se podrán desarrollar actividades que no estén directamente relacionados con el ocio juvenil, ni las que sean molestas o resulten sexistas. Asimismo, queda prohibida la compraventa de productos en dichos locales.

b) Quedan excluidas de la presente normativa las actividades de hostelería, servicios de bar, cafetería o restaurante en circos, barracas, choznas y sociedades gastronómicas, y todas aquellas actividades señaladas en el anexo II.B de la Ley 3/1998, de protección del medio ambiente.

Estos locales no podrán disponer de cocina, y en caso afirmativo se considerará como actividad de hostelería y se les aplicará la Ley 3/1998, de protección del medio ambiente.

4. Artículo. Personas destinatarias

1. Jóvenes: Mediante esta ordenanza se pretende mejorar las condiciones de los locales juveniles.

Como personas usuarias de los locales, se quieren dar a conocer los derechos de estos y estas jóvenes. Por otra parte, estos y estas jóvenes deben conocer sus obligaciones y responsabilidades ante una actividad como esta.

2. Vecindario: La causa del conflicto principal entre las personas usuarias de los locales y el vecindario suele ser el ruido. El objetivo de la ordenanza es mitigar los problemas y, asimismo, garantizar el cumplimiento de los derechos de las dos partes.

3. Propietarios/as de los locales: Esta ordenanza regula las condiciones que para su uso correcto deben cumplir los locales juveniles . En consecuencia, los y las propietarias de los locales deben tener conocimiento de esta ordenanza.

4. Los padres y las madres así como los y las tutoras de las personas menores de edad deben conocer esta ordenanza.

Artículo 5. Condiciones generales de emplazamiento

3. Se garantizará una distancia mínima de 50 m entre los locales. Si se da la circunstancia de que entre dos locales haya menos de 50 m, en el caso de que uno de ellos suspenda su actividad o cambie de titularidad no se le podrá conceder una nueva autorización.

Artículo 6. Seguro

Las personas usuarias (jóvenes) deberán disponer de un seguro de responsabilidad civil. Si las personas usuarias son menores de edad el seguro será a cargo de sus tutores o tutoras. La cobertura mínima será de 300.000 €. El seguro cubrirá a las personas usuarias y, por lo que pudiera ocurrir, a terceros.

El seguro del local en cuanto al continente será responsabilidad de la parte propietaria, y será opcional la contratación del seguro relativo al contenido.

Artículo 7. Contrato

Los locales deben tener un contrato de alquiler o de cesión de uso suscrito por la parte propietaria y por la representación de las personas usuarias. En el caso de las personas usuarias menores de edad lo firmarán sus tutores o tutoras.

CAPÍTULO II EQUIPAMIENTO, Y REQUISITOS HIGIÉNICOS Y SANITARIOS

Las medidas correctoras y requisitos contenidos en este Capítulo tienen el carácter de normas generales de aplicación para todos los locales afectados por la Ordenanza.

Artículo 8. Requisitos específicos del local

3. Únicamente se admitirán locales situados en planta baja. Tendrá acceso directo desde la calle o la vía pública.
4. La altura mínima del local será de 220 cm.

Artículo 9. Requisitos mínimos del local

9.1 No todos los locales son adecuados para desarrollar las diferentes actividades ya que deben cumplir unos requisitos de seguridad e higiene. Su cumplimiento será responsabilidad de la parte propietaria, salvo las indicadas en los apartados i) y j) que corresponderán a las personas usuarias.

Infraestructuras.

- a) Instalación eléctrica: es obligatorio que la instalación eléctrica esté en condiciones adecuadas para su uso y que tenga el certificado oficial correspondiente (certificado de instalación del instalador y boletín de Industria).
- b) Agua: Deberá tener acometida de agua y contador para asegurar por lo menos la ejecución de los trabajos de limpieza y el consumo de las personas usuarias. Deberá disponer de instalación de saneamiento.
- c) Aseos: los locales dispondrán de aseos. En caso de que no tengan ventilación natural deberán tener ventilación mecánica con salida al tejado o en su defecto a la fachada. Estarán dotados de lavabo y de inodoro.
- d) Extintor: Deberán estar dotados de los extintores exigidos por la legislación vigente. Por lo menos un extintor de polvo ABC de seis kilos.
- e) Luces de emergencia: tanto la señalización hacia la salida como el lugar donde se encuentre, así como los dispositivos de emergencia deberán estar debidamente colocados.
- f) Aforo: Se deberá establecer el aforo del local. Para ello se deberán tener en cuenta las indicaciones que sobre prevención de incendios determina el Código Técnico de Edificación. En este sentido, para las plantas bajas, en espacios de uso público, es de una persona por cada 2 m². El aforo máximo deberá estar expuesto en un lugar visible del interior del local.
- g) Puertas: La anchura mínima de la puerta de entrada y salida del local será de 80 cm.
- h) Entrada: Los accesos directos a la calle desde los locales deben estar adaptados para garantizar las medidas de seguridad y accesibilidad. Por otra parte, no dispondrán de acceso por el portal.
- i) Los locales estarán dotados de botiquín de primeros auxilios.
- j) Las estufas deberán ser eléctricas.
- k) Los locales dispondrán de ventilación; en este sentido, la superficie de las ventanas o puertas para la ventilación será al menos de 1/20 de las superficie útil del local.

9.2. El Ayuntamiento podrá inspeccionar las instalaciones con el fin de verificar el cumplimiento de los requisitos establecidos o, en su caso, para determinar las medidas correctoras.

Artículo 10. Medidas para evitar molestias originadas por ruidos

- 4. Los locales juveniles deberán respetar los niveles sonoros establecidos en la normativa sobre ruidos y vibraciones que diferencia tres tramos horarios:
- 5.
 - 1.- Día: 10 horas. de 09:00 a 19:00 horas
 - 2.- Tarde: 4 horas. de 19:00 a 23:00 horas
 - 3.- Noche: 10 horas. de 23:00 a 09:00 horas.

Lugar:	Db(día)	Db(tarde)	Db(noche)
Sala de estar	40	40	30
Dormitorio	35	35	25

El nivel sonoro se verificará conforme a dos criterios: en la sala de estar de las viviendas o en los dormitorios.

6. A partir de las 23:00 horas las puertas y ventanas de los locales permanecerán cerradas.
4.- En caso de incumplimiento de los niveles sonoros, el problema se resolverá conforme al protocolo de convivencia acordado. Si no se resuelve el problema, el local juvenil será clausurado.

Artículo 11. Medidas de higiene

- a) Dentro de los locales no se podrá depositar basura fuera de las bolsas o cubos de basura. Los residuos se deberán clasificar.
- b) El exterior y los alrededores del local deberán mantenerse en las debidas condiciones higiénicas. En consecuencia, no se dejarán abandonados los elementos utilizados en las actividades desarrolladas en el local ni los residuos generados.
- c) Los residuos, debidamente clasificados, se depositarán en los contenedores instalados en la calle por el Ayuntamiento.
- d) Los locales deberán estar en todo momento ventilados.

Artículo 12. Uso del espacio público

1. En la calle deberá limitarse el ruido ocasionado en los espacios de uso público por respeto a la convivencia y a la gente.
2. En este sentido, no podrá reunirse un gran número de personas en el exterior del local. Y no se admitirá la ocupación del espacio público por motocicletas, bicicletas o elementos similares.
3. Se procurará evitar ruidos provocados por gritos, cánticos, silbidos, motores de motos y coches.

CAPÍTULO III RÉGIMEN JURÍDICO

Artículo 13. Solicitud de apertura de nuevos locales

1. La actividad se comunicará al Alcalde-Presidente haciendo constar los siguientes datos:

- Nombre y apellidos, número del documento nacional de identidad o cedula de identificación fiscal, dirección y teléfono de la persona solicitante.
- Nombre, apellidos y teléfono de contacto de las personas responsables del local. En caso de personas menores de edad, documento acreditativo de la autorización de sus padres, madres, tutores o tutoras.
- Ubicación y descripción del local: calle, número y superficie total y parcial (baños, almacén). Plano y detalle de los lugares donde estén instaladas las medidas de seguridad.
- Datos de la persona propietaria del local: nombre, apellidos y teléfono.
- Nombre, apellidos y teléfono de la persona administradora de la comunidad donde se ubique el local. Esta persona será quien estará en contacto con las personas usuarias (jóvenes) del local.

- Documento acreditativo de la propiedad del local o el contrato de arrendamiento.
- Copia del seguro de responsabilidad civil. En caso de solicitud de primer uso, se deberá presentar el presupuesto del seguro de responsabilidad civil. Si se obtiene el permiso de uso, se concederá una semana de plazo para presentar la copia del seguro de responsabilidad civil.

Artículo 14. Procedimiento para la apertura de nuevos locales o para regularizar la situación de los locales utilizados actualmente

- Previa a la apertura de un local, las personas usuarias (jóvenes) deberán presentar la documentación indicada en el artículo anterior.
- Los servicios técnicos municipales inspeccionarán el local para verificar el cumplimiento de las condiciones previstas en el artículo 10.
- Deberán justificar el cumplimiento de los requisitos presentando la documentación acreditativa necesaria.
- Presentada la documentación correspondiente, el Ayuntamiento inspeccionará el local.

Artículo 15. Locales no registrados

Sin perjuicio de las sanciones que procedan, cuando se tenga conocimiento de que un local no se ajusta a lo establecido por la presente Ordenanza, se adoptarán las siguientes medidas:

- Si el local puede regularizarse, se requerirá a sus titulares la regularización de su situación, concediéndoles al efecto un plazo que, salvo casos excepcionales debidamente justificados, no podrá ser superior a tres meses. Asimismo, el local podría ser clausurado, si se estimara oportuno, previa audiencia de las personas interesadas.
- Si el local no pudiera regularizarse, por incumplimiento de esta ordenanza, deberá procederse a su clausura, previa audiencia de las personas interesadas.

CAPÍTULO IV RÉGIMEN DISCIPLINARIO

Artículo 16. INFRACCIONES

Las infracciones contra esta ordenanza se clasificarán en leves, graves o muy graves:

16.1.- Infracciones LEVES:

- Las infracciones que no hayan sido clasificadas expresamente como graves o muy graves en esta ordenanza.
- La verificación en un mes de dos quejas por ruidos.

16.2.- Infracciones GRAVES:

- a) Ocultar o no presentar los datos exigidos a las personas titulares de la actividad.
- b) Obstaculizar o impedir al Ayuntamiento, de un modo activo o pasivo, la realización de sus labores de inspección.
- c) Modificar intencionadamente las medidas establecidas por el Ayuntamiento para la subsanación de las deficiencias detectadas.
- d) La recepción de dos quejas después de haber cometido una infracción por ruidos.

16.3.- Infracciones MUY GRAVES:

- a) Cometer reiteradamente en el plazo de un mes infracciones leves y graves.
- b) Serán sancionadas todas las expresiones de poder que se realicen mediante actos de violencia o de control. Todas estas actitudes serán estudiadas y objeto de resolución en la mesa de protocolo (ver el anexo 1). En estos casos se dispondrá del asesoramiento del personal técnico de Igualdad.²

Artículo 17. Prescripción

Las infracciones señaladas en la presente ordenanza prescribirán en los siguientes plazos, a contar desde la comisión del hecho o desde su detección, si este no fuese inmediato:

- a) Las infracciones graves, entre un año y dos.
- b) Las infracciones leves entre 6 meses y un año.

Artículo 18. Sanciones

a) Infracciones muy graves:

- Las personas infractoras (jóvenes) tendrán prohibido durante 1 año ocupar otro local.
- Prohibición de arrendamiento del local (1 año)

b) Infracciones graves:

- Las personas infractoras (jóvenes) tendrán prohibido, como máximo durante tres meses, ocupar cualquier otro local.
- Prohibición durante 4 semanas de ocupar el local juvenil donde se haya causado la infracción.

b) Infracciones leves:

² Véase este documento del Ayuntamiento de Tolosa: 1^{er} Protocolo municipal de intervención y coordinación interinstitucional para mejorar la atención a las mujeres víctimas de la violencia de género o agresiones sexuales.

- Prohibición durante 2 semanas de ocupar el local juvenil donde se haya causado la infracción.

La sanción de clausura del local se prevé para los casos en que la parte propietaria del local incumpla lo establecido por esta ordenanza.

Artículo 19. Disposiciones

Disposición adicional primera. Registro de locales y personas usuarias

a) El Ayuntamiento creará un registro de locales con los datos obtenidos a través de esta ordenanza.

b) El Ayuntamiento hará un seguimiento de los locales y dará baja a los que no estén en marcha.

En caso de que en un local se produzca alguna modificación, esta deberá ser comunicada al Ayuntamiento.

d) El Servicio de Juventud del Ayuntamiento mantendrá siempre informadas las personas usuarias (jóvenes) de los locales.

Disposición adicional segunda. Servicio de asesoramiento de locales

1. Las personas jóvenes, y en el caso de los y las menores de edad sus padres y madres, tendrán a su disposición en la Oficina Comarcal de Consumo información sobre las condiciones y contratos de los locales, y un servicio de asesoramiento.

Disposición adicional tercera. Inspección y control.

1. Los locales se inspeccionarán una vez al año para verificar su estado y, asimismo, actualizar la relación de locales.

2. Serán competencia del Ayuntamiento las funciones desarrolladas para verificar el cumplimiento de las disposiciones establecidas por la ordenanza. Asimismo, el Ayuntamiento tendrá la facultad de efectuar las inspecciones que considere oportunas. La Alcaldía, o en su caso, el o la concejal delegada de Urbanismo tendrán la facultad de adoptar las medidas oportunas para garantizar dichas funciones.

3. En caso de que se observen deficiencias en el funcionamiento de un local se requerirá a sus representantes su subsanación, para lo que se les concederá un plazo determinado de ejecución. Este plazo será inferior a tres meses, salvo en casos debidamente justificados.

Disposición transitoria.

Los locales que actualmente funcionan como locales de ocio de jóvenes dispondrán de un mes de plazo desde la entrada en vigor de la ordenanza para cumplimentar la ficha del registro de locales; para su habilitación, dispondrá de tres meses de plazo, a partir de la fecha de inspección del local, para presentar la documentación exigida por esta ordenanza. En caso de que en un plazo de tres meses no se cumplan los requisitos establecidos por la ordenanza, se procederá a la clausura del local.

Disposición final.

Esta ordenanza entrará en vigor transcurridos 15 días naturales de su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tolosa, a 22 de octubre del 2013. Ibai Iriarte San Vicente, Alcalde de Tolosa.

ANEXOS (1)

PROTOCOLO DE CONVIVENCIA CONSENSUADO.

Objetivo: regular y ejecutar los criterios de convivencia en relación con el fenómeno de los locales. Asimismo, detectar, canalizar e intentar resolver los diversos hechos y problemas de convivencia que puedan surgir.

Uso: gestión cotidiana de los locales. Será, asimismo, una herramienta útil ante cualquier conflicto y desacuerdo.

Miembros y representantes de este protocolo:

a) En el caso de los locales de jóvenes se nombrarán dos representantes por cada local, que constarán en el registro de locales junto con sus teléfonos de contacto. En los locales de menores de edad se designarán como responsables a un o una joven y a un padre, madre o persona tutora.

b) En cuanto al vecindario, la representación estará integrada por el vecindario implicado.

d) Propietario/a del local. Si surgen problemas o molestias se convocará también al propietario o propietaria del local para que participe en su gestión y resolución.

e) Ayuntamiento. Cuando así lo exijan los hechos, también participarán en la gestión de los problemas/molestias la Policía Municipal y el Departamento de Juventud.

Relación ordinaria: El Servicio de Juventud tendrá conocimiento y testimonio permanente de los hechos que acontezcan en relación con la convivencia en el uso de los locales.

En el caso del vecindario, el esquema del protocolo o del funcionamiento será el siguiente:

-La pauta prioritaria de actuación será la de comunicar al vecindario y a las personas usuarias, directamente y en el momento, la queja o el problema, así como sus posibles soluciones.

-Trasladada la queja del vecindario a la Policía Municipal, ésta se personará en el lugar y la comunicará a las personas usuarias del local. En los casos en que sea necesario, la Policía Municipal efectuará las mediciones de sonido oportunas.

-El vecindario presentará su queja en el Registro Municipal.

El Servicio de Juventud funcionará como centro de asesoramiento de las normas de convivencia.

En los casos en que haya reiteración de problemas de convivencia se procederá conforme al siguiente protocolo:

3. La queja será notificada por el Servicio de Juventud a las partes implicadas: a la representación del local, al vecindario, al propietario/a del local y/o a los padres o madres de los y las menores de edad.
4. Con la segunda queja se activará la Mesa de Convivencia para estudiar el problema y solucionarlo entre las partes implicadas.

Composición de la mesa:

- Representantes de los locales. (si las personas usuarias son menores de edad, sus padres, madres o personas tutoras)
- Vecindario implicado.
- El o la propietaria del local.
- La Jefatura de la Policía Municipal, el técnico o técnica de Juventud y el concejal o concejala de Juventud.

Si la actuación de la mesa de protocolo no diese frutos, la decisión última la adoptaría el Ayuntamiento.

